


[8]

1971 - (Trails)?



Ikasteak, eta ikastea aipatzean, norberak egiten duen lan pertsonalak bereziki, guztizko garrantzia du gizarteko harremanetarako. Ikasteak, ordea, zenbait oinarri tekniko teknikaz baliatzea eskatzen du: ikusi, entzun, hitzegin, irakurri, idatzi. Teknika hauk ongi erabiltzen ez dakienak eragozpen eta oztopo handi bat gainditzeko du oraino. Ikasteak, gainera, etengabeko jarraipena eskatzen du.

" J. Burniaux-"ek.



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

eta beste gabe Ikastola arazoa judikatzen ari denarekin eta arabera horretan jokabidea hartua duenarekin zer eginik ez dugu burruka baino.

- Guk behetik gorako norabidean oinarritzen dugu pedagogia (kursilloak, ikastola-lana...) eta organizazioa ere (herri, bailara, eskualde...) gauzak zentralismo baten indarrez zintzurretik sartu orde.

- Irakasle-Elkartea, elkarte bezala, ez dago politika-talde berezi baten zerbitzuan. Besteren bat baldin balego, kasu eman dezala bere errua inori jaurti gabe.

- Ez dugu onartzen, nahiz Elizaren babes, nahiz legearena atxakitzat harturik, dena maneiatu edo kontrola dezaten.

- Ez-eta beren alferkeria edo ezin egona disimulaturik behar ez den lekuan sudurra sartu eta lo-bela rraren gisako erlijioa dakarrenik. Behartsuen eta zapalduen askatasun-osasun-salbamena dela uste dugu Kristoren Berriona.

- Hala berean, gaur eguneko gizarte-molde hau eta Elizaren beraren muntadura ere ez ditugu begiko. Gisa horretako interesen defenditzera datorrenarekin, dena delarik ere, ez gaitezke ongi konpon.

- Guk geure bidea urratu nahi dugu, eta herriaren tzat erakunde jator bat moldatzeko papaz ez bagara izaten, geurea izanen da errua, baina nolana dela ere bestek ezarri edo emaniko nortasunik ez dugu gogoko.

Beste hainitz iritzi eman zitekeen, baina hauk aski direla nik uste, egin diren azterketek eman dituzten iritzirik agirienak berauk direnez gero.


Horiek horrela, Iruñako kursilloa ez zen osoki bertan behera johan. Hiru lekutan sailkaturik egin genuen eta oinarrizko parte denetan ere ongi salbaturik egin. Honi bagagozkio, are positiboago izan dela esan beharko genuke. Alde batetik, Iruñarako hamar egunetan lantzeko sobera gai bait zen eta bestetik, kasik hirurehun lagunekin egin behar den ikastaldia burutzea ere ez zen xantzetako eginkizuna.

Hala ere, Iruñako Seminario Handian genuen lekua ikusi, eta irurehun irakasle elkarrekin eta multzoka lanean ari izateak ondorio onik asko izanen ez zuen dudarik ez dugu.

Dena dela beste sentipen bat ere ba dugu: ez bai-
menik, ez indarrik, ez dirurik, ez eta osperik gabeko
jendea garela. Behartsu, arlote eta kaxkar egiaz, horre-
lako kaskarreko bat hartzean bat senti ohi den bezala.

Horregatik, bada, dena galdua dugunik ere ez dugu
inola pentsatzen. Deus ez duenak ez du zer galdurik,
eta gain gaintetik, gurea da geroa harik-eta gaztetasu-
naren dirdaiak argitzen gaituen arte. Kontradizioak
zenbat-eta nabarmenago, hainbat-eta dinamika gehiagora
ko bidea, baldin-eta ekinbide oro probetxatzen jakiten
badugu eta eztabaida edo sokatiran indarrak xuhurtzen
ez baditudu.

GOIKO.



-6-


PEDAGOGIA BERRIA ALA BERRITUA

Oraingo teknikak, berriak batipat, pedagogiarekin bat eginak daude. Pedagogiaren bide berriek ez dute bere oinarria hutsunean, eguneroko zerkian, errealitatean baizik. Erabiltzen duen sujeta gizona da edo "gizon-promes" bat. Horregatik asmatzen dabil nolako metodoak erabili, gizonak eta aurrerabideek eskatzen dizkion erantzunak, behar dan bezala emateko.

Gizonen formazioa behar den bezala preparaturik, irakasleek zentzuki hartu beharra dugu heziketa lana. Pedagogiaren eskariak bete nahi baditugu teknikak dakartzigun komunikabide berriak guregana ditzagun. Teknika eta gizona joan bitzate bata bestearen eskariak konprenituz eta hasetuz.

Gizona da sujeta funtsezko mundu honetan. Bera gabe teknikak ez luke apurtxo bat besterik egingen. Horregatik pedagogia atzeratua geldi ez dadin, molde zaharrak utzirik, bide normalizatuetara jo du. Bide normalizatu hau gizonagan pentsatua dago, bere norberetarenean oinarritua, bere pertsonalitatean zimendatua. Gizona izanen da teknika berri honen zati funtsezkoena, estimagarriena, aipagarriena.

Mutilari begiraturik, ez ditu humilatuko bederen, zapalkeriak kondenatuko ditu, eta askatasuna izanen da helburu eta oinarri.



a.- Pertsonalitatearen desarroiloa esaten dugunean, susmu matdadukagu gure irudimenean, hau da, mesfidantza, hizkeria, denbora galtzea dela adierazten da. Hanitz alegatzen da, ikastola praktika bat ikasteko dala. Bizitzarako praktikatasun bat. Baina nik galdera hau egiten diet hala hitzegiten ari diranei. Non dago praktizismoa?...zer da praktizismoa?...IKASKINTZA HUTSA? hots, non daude orain arte ikasi ditugun gai gehienaren praktizismoa? lezioetan? asteroko noteetan? edo non bestela?... Gizonak bere eskubideak osatzeko forma izan dedin...bere bizitzan moldatzeko indarra izan dadin...bere izakiak baliotasun bat ukan dezan...t.a. Hau da guztiz interesgarria, nere iritzi, enplegatu behar dugun praktizismoa. Gaurko pedagogiaren "slogan"

izan dateke: "IKASLE BAKOITZAREN NORBERETASUNA TA IZAKITASUNA, HANDITZEA, LORTZEA, OSATZEA.

b.- Dena dela mutilen artean ziotasuna, motibazioa lortu beharra dugu. Eguneroko ekinaldietan, ariketeetan, ikasialdietan, eskulanetan, elkar-hizketeetan etb. Egunero ikusten dira eguraldi onak eta txarrak, baina zenbat fenomeno berri mutilen bizitzeetan, pentsamoldeetan, zenbat motibazio hainbat ondorio aipagarri.

d.- Bai ahal ditu ikastolak sozializatzeko motak? Eta baldin baditu zeinek dira? Zer gaietan sozializatzen dira? Zeinek dira elementu argienak horretarako? Lehena, ikaslea taldean dago. Bertako elemendu bat, makina horren zati inportant bat. Bakarrik ez dabil... besteen laguntzapean dago batzuetan eta besteetan bera dago laguntzeko prest... Ezagutuko du bere bizitza molde batzuetan osatuko duela edo osatu behar duela. Hala pertsonalitatearen bideakidrikiko zaizkio, inoiz ere asmatu ez zituenak.

Konprometitzen ikasiko du, eguneroko egin beharretan... perpausetan... harremanetan. etb... integrazio baten beharra sentituko du. Integrazio honetan NI DENON TZAT eta DENOK NIRETZAT da lema.

Eta sozializazioa non? Mutilaren giro propioan.. bere eskualdeko giroan... bere uriko giroan... bere baserri giroan.. Bere bizitzak errealismoa behar du. Errealismoak, gauzak konkretuak eskatzen ditu, eguneroko ogia, inguruko ohiturak, katramilak, atarramentuak... pertsonaiak... prolematikak... Eta hau dena eskola barnean eta pedagogiaren giro-berrian.

Exemplo moduz esanen nuke: hibaia zer den irakatsi behar badut, ez dut hasi behar Misissipi hibaia zer den ikakasten... gauza ona eta aipagarria izanarren... ez baita lojikoa; alderantziz, Ibaizabal hibaia zer den irakatsi beharko dut zeren hibai hau egunero ikusiko dutena baita, eta gainera gauza konkretua. Hau ikasita beste gaintzeko hibaiak ere konprenituko dituzte eta berarekin alboetako gaiak... Lekuko giroa dela medio sozializazioak leku bat daduka.

Baina pedagogiak zer elementu edo tresna erabiltzen ditu lanerako? Laburki bada ere esanen nuke bi direla funtsezkoenak: programazioa eta fitxak.

1. - PROGRAMAZIOA

Programazioa edozein molde-bideetan inportantea da, baina dudarik gabe pedagogian dadukan inportantzia ez da neurritzekoa, handia baita, batipat egiturak edo estrukturak orden lojiko bat segi ditzaten. Orden lojiko horrekin programazioak bideak irekirik aurkituko lituzke. Programazioak egitura bat errespetatzen dauku; programazioak, helburuak bukaera on bat ukan dezaten, ondorio on bat lor dezagun, laguntzen dauku.

Ikastolan programazio bat egiten badugu, ikastola guztiko ekinaldiak programatuak daudela adierazi nahi dugu. Programazioa dagoen ikastoleetan, etorkizuna ez dago aparte oso. Horrez gainera programazioa aurrez aurre dugula, irakasleen eginkizuna konkretazten dugu. eta ikasleek legeko eta kideko legepean gelditzen dira. Programazioak bataren eta bestearen lanak egiztatzaren ditu, ebaluazioa zehatzagoa da. Egiztapena edo ebaluazioa ez litzateke aurrera eramanez programaziorik ez balego.

Baina bestalde, egitamu hau egitura hutsean geldi ez dadin kalitate haukin egin behar litzakete: arintasunakin, esperimentala izan behar du eta neurgarri.

Gaien aldetik begiraturik programazioa holan agertu dateke: puntuala, gaia bakarrik programatzen denean. Bertikala, gai bat bakarrik programatzen denean, baina maila guztietan. Horizontala, beraien arteko gai berdinak programatzen direnean.

Denbora edo epe aldetik programatzen denean bestalde da: urterokoa, jenerala da eta beharrezko, urte guztiko ideia lortzen baita. Hiru-hilabeteko, maila guztietan egiten da eta urte guztiko programa hiru zatitan banatzen da. Hilabeteroko, hau ere beharrezkoa da eta goiko mailetan erabili dateke; probetxu handikoa da eta nahi epe gelditzen da gai guztiak aztertzeko. Hamabosteroko, gaur egunean gehienik erabiltzen da. Oso praktikoa da. Bederatzi eta hamalau bitarteko mutilekin erabili dateke. Denbora guttirako programatzen bada dira gaiak orduan dira konkretuagoak, bestalde, urte guztiko ikasleei luzegi egiten zaie. Asteroko, lau urtetik seira bitarteko ikasleentzat. Lehen esan dugunak hemen ere balio du. Eguneroko, programazio honen molde

-bide ezberdinak ditu guztiz. Edade honetan, adin honetan, ez dago luzaroko programarik. Egunero gauza konkretu eta berezi eratu behar da, haurrak ihardun irau^u kor ukan dezaten.

Programa bat egiterakoan zeinek dira gogoan hartu behar diren elementu funtsezkoenak?

Topikoa. Tema zentrala da eta orokarra. Hamabosteroko edo asteroko gai inportanteena. Ikaskintza. Topikoa ondo hautatu, aukeratu badugu serio^ski jokatu beharra dugu. Hiru edo lau nahikoak dira. Topikoak eta ikaskintzak koordinatze bat behar dute. Helburu, topikoak eta ikaskintzak koordinatze batera generama eta bederen, ziotasun batera, helburu zehatzak aukeratzera. Programazio guztien puntu zentrala, helburu da eta hauk prozesu on batean finkatu behar dira. Helburuak klar ki ikusi behar ditugu. Helburu fijo bat badugu jokabide guztiak horretaz izanen dira. Ekinaldiak, ez da nahikoa programa batean gaiak jartzea, idaztea, topikoak ondo pentsatzea, helburuak marratzea... mutilen alde tik, ekinaldiak ditugu medio "sine que non" ikasteko, ikasitakoa bereganatzeko.

Materiala, Tresna, beti laguntzaile dira eta ekinaldi ei ezin bestelako mesede egiten die, baina beharrezkoak eta ez alferrikakoak. Kontrola, eguneroko lanaren kontrola, asteroko kontrola, hamabosteroko kontrola.

Azterketa da. Lanarekin batean, lanerako prestasuna ta seriotasuna neurtzen da, kontrolatzen da. Programazioan epe konkretu bat markatu behar da. Kontrola izan dateke gai batena edo guztiena.



FITXAK

Programatzea inportante bada, fitxek ez dute arreta gutxiago merezi. Tresnak bezala erabili behar dira, medio baitira. Hauk gabe metodologia irau^unen litzake, baina metodologia berri honetan, egia esan behar badugu, fitxak dira elementu funtsezkoenak; ados na go, beste tresnak ere badirala, esaten dutenekin, baina sistema bakoitzak bere tresnak aukeratu behar ditu eta ez beste.

Esan dukegu bere egin behar kapitala, laguntza eskain

tzea dela, orientaziorako bideak irekitzea, gidaritasun izpiak prestatzea. Hain funtsa handikoak badira, presta gaitzen hauen gaia eta sistema didaktikoa ezagutzen, honetik bai datorkio esitoa edo frakasoa lanari.

Zebat klaseko fitxak erabili dirateke eskolan?

Fitxa-gidari:

lanean nola ekin adierazten dute... horretarako enplegatzen diren edo enplegatu behar diren bideak. Zein liburu diren egokienak espresatzen dute, lanaren prozesu zehatza agertzen dute. Detaile konkretuak alde batera utzirik, ideia jeneralak adierazten dira.

Fitxa-ikaskintza:

liburu baten betebeharrak egiten ditu. Konsultarako ondo datorzkigu. Bere ikaskintzak azterketak dira... a gerketak... laburpenak... zitak... datoak... etb. Ez dira sarritan egiten kasu berezi batzuetan besterik.

Fitxa-kontrol:

gaiak berritzeko eta erreparatzeko balio dute. Gehienean azkeneko fitxa izaten da eta bere muinak hauek dira: galderak... agerpenak... galdeketak... eginkizunak... arketak, etb.

Fitxa-birlora

ez dira denontzat egiten, atzeratu xamarrak gelditu direnentzat baizik. Jakintza berritzeko dira, hobetoago oinarritzeko eta kontroleko frogetan neurri konkretua eta beharra lortu ez dutenentzat ziri eta eztena. Programazioan ere epe bat aurkitu behar da lan hauetako.

Fitxak egiteko enplegatu behar diren lege funtsezkoenak.

.- fitxa batean ez dira gaiak nahastu behar. Gai argi eta bakarra egon dadila.

.- fitxak bere barne muinetan batasun ongarri bat ukan dezatela. Gura bai gura ez, hau da oinarri ta baldintza funtsa handikoa.

.- fitxak "elementu sistematiko" baten zati izan ditezela. Planifikaturiko gaiak ikutu behar ditu.

.- hiztegiari buruz arreta eta funtsa handikoa da, erraza eta haurraren girokoa eta mailakoa izatea. Bere edaderako basikoa.

.- fitxak progresiboak izan ditezten, prozesu bat jarraituko dute, hau da: oharpen...muina...nukleoa...laburpena...kontrola.

.- fitxaren idazkera zuzena eta direktoa izan da din; estilo hau oso baita sendikorra ta egokia.

.- fitxak margotuak direnean, mutileentzat estima zio handiagoa dadukate eta honek ere lanarentzat txalo eta aupa berezi bat irabazten du..

Jose Maria Erzibengoa.



Haurra eta Ingurua



Hau zuen izenburu udako ikastaldiko gai batek. Bainan haurra ez zen ikasi eta aztertu hain zuzen gai honetan. Giroa edo ingurua izan zen aztertu zena, eta pixka bat andereñoek hartu behar duten jarrera.

Lehenengo hasaldian egun dadukagun gizarte eraketa honen etorbidea ikasi zen, eta gizonek naturalezarekin eta elkarrekin dituzten harremanak. Bigarren, eraketa honek sortzen duen gizona. Gero, puntu haueri buruzko galdekizun bati erantzun zitzaion, taldeka, ondoren bilduma bat eginik.

Gizarte guzien oinarri ondasun materialen produzioa da. Hau era ezberdinetan moldatua izan daiteke, baina era orok hiru elementa hauek behar dituzte izan:

- a) Langaia.
- b) Lanerako tresnak edo bitartekoak.
- c) Gizonaren lana.

Kondairan zehar produzioak etapa batzuk jarraitu ditu, eta etapa hauetan gizonak jarrera batzuk hartu ditu, horrela gizarte eraketa bereziak sortuz.

- a) Haseran, dena denena zen, ez zen jabetzarik.
- b) Gero, lurraren aberastasunaz konturatu zirenean, hau da, zenbat eta jabetza handiagoa izan, orduan da ondasun gehiago zutekela, ahal zuena ahal zuen lur guzien jabe egiten hasi zen, konpetentzia edo indarra bide dela, bakar jabetzari oinarri emanik. Lurrarekin batera, lanerako tresnak ere era berdinean gelditu ziren. Era berean gizonak ere, batzuk jabe eta besteak ez, batzuk bai eta besteak ez. Klase ezberdinak sortzen dira.

- d) Hurrena, feudal garaia, nagusi eta esklaboen arteko burruka sortzen da. Lurra eta tresnak nagusiarenak dira, lana morroiek egiten dute, eta morroiaren lanetik bizi dira bai morroia eta bai nagusia.

e) Eta teknika aurreratzen hasi zen, eta mo-
rroiek ere behar baino gehiago produzitzen zuten. Be-
har ez den hori norberak ez dadukanaz trukutzen hasten
dira. Baina, baloratu egin beharrez, eta gainera, truka-
bideak erosoagok izatearren, dirua sortzen da, honi ba-
lore unibersala emanez. Orain produzioa erosi eta sal-
du egin daiteke, erosi baino saldu garestiago eginez
noski.

f) Bide honetatik diru akumulatzea dator, bes-
te jabetza berri bat, kapitalarena. Hemendik sortzen
den klase berriari burges klasea deritzaio. Baina pro-
duziorik ezean, diru honek ez du balio, eta diru hori e-
re produzioan sartu eta produzioa desarroilatzen has-
ten dira.

Hortik honera industria aurkitu zuen gizonak, eta
berari eman ere garrantzia. Eta hor sortu zen gizarte-
ak artean izan ez zuen reboluziorik handiena, rebolu-
zio industrialak, burgesak eginikoa hain zuzen. Hurrena
langileria izenen da berriz ere burrukan hasiko dena,
ordu gutxiago lan egiteko t.a..

Eta, bete betean, kapitalismo garaian eta giroan
gagoz.

Hau gizartearen eraketa bat da, betikoa eta leku
guzitakoa izan ez dena. Aztertu ditzagun orain honen
karakteristikak.



Gizon guztiok, izatez, berdinak ga-
ra, baina gaur batzuk lanik egin
gabe bizi dira, eta besteak hoien
menpean. Zapaltzaileak eta zapal-
duak deitzen diegu bi gizon kla-
se hoieri.

Klaseen konzeptoz eta etorbidez
iritzi ezberdinak ba dira: diru
berdinen jabe izanik ere, batak baino besteak gehiago
gastatzen duela, eta, luzarora, batak diru gehiago izanen
duela. Beste batzuk diote, gizon batzuek beren ahalme-
nak desarroilatu egiten dituztela, eta besteek ez.

Huel huskeriak dira. Lot gaitzen gizartearen
oinarriari, hel dezaiogun produziobideari, norenak dire
langaiak, bitartekoak, lana eta produzioa alegia, eta
klase bakoitza zein lekutan gelditzen den.

Klase ezberdinen arrazoina PRODUZIOKO PROZESOAN GIZONAK ZEIN PUESTO DUEnekoan dago. Jabe izatea eta jabe ez izatea da kontua.

Naturalezarekin harremanak.- Kontzientzia da naturalezarekiko harremanetatik sortu den gauzarik eboluzionatuena. Gizona kontzientziaren bidez izan daiteke gizonago. Gizona lanaren bidez jartzen da naturalezarekin harremanetan. Teknikak harreman hoi^{en} zerbitzaturako egon behar du, eta ez gizona teknikaren zerbitzaturako.

Gioznen arteko harremanak.- Bi eratakoak izan daitezke: elkarri laguntzeko, edota elkar zapaltzeko.

Kapitalismoan, harreman hoiek elkar zapaltzeko dira, eta ez nagusiak langilea bakarrik, langileak ere nahiago du nagusiarekin ondo egon bere parekoarekin baino. Adibidez, prima kontutan gezurra esan elakrri, goikoaren aurrean bestea gu baino okerrago gelditzeko: hartara, gu onenak. Eraketarentzat zatiketa hau oso egokia da.

Gizona eta alienazioa.- Alienazioa gizon batek beste baten nortasuna beretzat har nahi izatea da, langile izanik burges itxura eta pentsakera agertzea.

Alienazio honen bideak: moda, droga, kotxe, sexo, t.a.

Krisiak gehiegi produzitzeagatik izan ohi dira gaurregun. Saldu ezin, eta saltzen ez den bitartean lanik ez dago. Horregatik, ez dagokiguna ere erosi egin beharra dadukagu, berriz lana eginen badugu. Eta kapitalismoaren krisiak geurok soluzionatzen ditugu, konsumoko gizartea sortuz, geuron buruak lotuz.

Lana zertarako egiten dugun arrastorik ez dugu, beraz, kontzientziarenik ere ez. Alienaturik gaude.

Lanera beharrez joaten gara, -egokia bizkaitarre-na, "biharra"-, lanari gorrota diogu, ez derizkiogu kontzientzia desarroilatze^{ko} bide.

Lanaren konzepzioa deformatua dago. Aukera bakarra dadukagu: iraultza

Gizarte kapitalista.- Garai eta produzio era bakoitzak gizarte eraketa eta klase bereziak sortzen ditu. Lehenengoak eboluzionatzen joan diren bezala, gizarte eraketa ere nplabait eboluzionatua dago, eta klaseak zer esanik ez.

Elkar esplotatzen dugunetik klaseak ba dira. Klasea da alienazioa dagoen toki bat, hau da, bere izatea nabaitzen da langileak harrotuko zaizkion beldurra sartzen zaionean. Langileak berriz, burgesak, kapitalismoak esplotatzen duela ikusten duenean. Bata bere burua defenditzen hasten da, azpikoak baretu nahirik, edo indarrez gehiago zapalduz. Eta bestea burrukara joaten da, bere eskubideak eskatuz, alienazio kate hoik askatu nahirik. Eta modukoa modukoarekin elkartzen da. Honekintxe heltzen dira bereizketa hoiek klase izatera. Bi baldintza ditu klase izateak: bizitza berezia eta elkarte sentidua (burrukarako).

Klase bizitza. - Hiru eratako gizonak aurkitzen ditugu hemen:

- a) Langileak dira, baina burgesa bezala bizi nahi dute. Klase honetan hauek hutsa dira, kontzientzarik ez dute.
- b) Beste batzuek kontzientzia ba dute, baina klas seko bete beharrak ez dituzte kontzientzia horrek eskatzen duen neurrian bizi.
- d) Besteek, konturatu eta burruka horretan dadukate beren lehiaketa guzia.

Bakarka jokatzeari ez da onartzen. Soluzioa denontzat behar dugu, bestela ez dago.

Burrukaren sentidua. - Gaurko eraketa honekin ez gagoz konforme, alienaturik bait gaude. Baina burruka honek ez du izan behar bata bota eta bestea jartzeko, bakoitzaren onerako. Gizonak askatu behar ditugu, gizon bakoitza. Beraz, eraketa da aldatu behar dena.

* * *

Gizon materialista kapitalist gizartekoa

Sistema kapitalist honek gizon bakartia, materialista, apolitikoa, triunfalista sortzen du. Egungo kapitalismoa jende xehearren konsumoz baliatzen da bere sakela betetzeko. Gauzak interpretatu, ulertu eta baloratzeko era konkretu bat ematen dio gizonari. Eraketa honen baitan moldeatzen den gizonaren karakteriztika garrantzitsuenetako bat hau da: gizon materialista.

Materialismo honek gauzak eduki eta konsumitu besterik ez du pentsatzen, gauzak; Heziketa konsumitzailea ematen du, eta masiboa gainera, gizonaren helburua gauzetan jarririk. Honek inorgatik pausorik ez ematea dakar ondorio.

Kapitalismoak honetarako erabiltzen dituen bitartekoak.

Kapitalismoak, bere pentsamoldea gizonari ezarri ahal izateko, instituzio guztiak bere serbitzurako jarri ditu (eskola, unibersitatea, familia, organizazio politiko, eliza...)

Informazioa kontrolaturik, (izparringi, aldizkari, propaganda, irrati, telebista t.a.). Gizon atomizatu bat moldeatzen du. Propagandak kritikarako ahalmenak estali egiten ditu, kultura burges eta konsumitzailea osaturik.

Zineak, deporteak, mitoak, gizona entretenitu, eta ez pentsatu ahal izateko jarrita daude. Herriak zer pentsaturik ez daduka, dena planeaturik ematen baitzaio.

Bide honetatik, herriak daduzkan nahiak desbiatu eta bere erara kanalizatzen ditu sistema honek.

Honela, gizonak besteek egiten dutena egiten du, besteek pentsatzen dutena pentsatzen, alienaturik, besteekin baitan bizi da.

Gaurko gizartearentzat, besteek aintzakotzat hartzen ez dituzten gauzetaz arduratzen dena, modak, deporteak, dantzak t.a. alde batera uzten dituen, ideologia bat agertzen duena, arrotza da.

Goiko maila horrek gizonaren ahalmenak neurtuak daduzka: lanerako orduak, extrak, plazoak, prestamoak... Baina ez inori laguntzarren, ekonomi muntadura horri eusteko eta inbersioak ugaltzeko baizik.

* * *

Kapitalismoak gizon izatea ukatu egiten du.

Eskuratu ditzaken gauzetan baloratu du gizonak bere burua, alienaturik.

Lana gure buruaren kontzientzia osatzeko izan be

harrean, gauza hoiek eskuratzeko bide egin dugu, kontzientzi ikuspegia mozturik. Beraz, gizonak bere kontzientzia gauzetan jarri du, eta gauzak nola diren, hala da bere burua ere: ona edo txaharra, arlotea edo... (Ba omen da esaera budista bat: hatzamarrak ilargia seinalatzen duenean, inoxenteak hatzamarrari begiratzen omen dio.)

* * *

Gu kapitalismoak hezitako gizonak gara

Esandako guztiären ondorena konformidadea da. In konformista beti arriskuan dago. Eta guk lasai bizi nahi dugu, dadukaguna galtzeko bildurrik ere, ezta arriskatzeko ere. Frakasoarekin ez da beldurtuko, eta lortzen duena, bere parekoekin batera lortua izango da.



Gizon berri bat sortu behar dugu. Gaizki dagoena botatzea ez da aski, gero hutsuna bat aurkituko bait dugu, aurretik gero zerekin geldituko garen ez baldin badakigu. Gizon berri horri eman behar dizkiogun balo^oreak garbi ikusi behar ditugu, lehengoa botatzeko oina^orriak jartzen ditugun heinean.



ERANTUNEN BILDUMA

"HAURRA ETA INGURUA" gaieko hitzaldian ondoren, galdekizun bati erantzuten zitzaien. Eta hemen azalduko dautzuegu bilduma nola egin dugun. Lehenengo ikastaldiak egin diren bailaretako jendearekin hartuemanetan jartzea erabaki zen, galdekizuharen erantzunak jasotzeko. Berez, taldeka erantzunak izan ziren.

Gai honi buruz hartutako erabakiak

Euskal gizartearen ongi finkaturik behar dugu egon, eta bere egoera edo behar bereziekin parte hartu. Horretarako, herrikoitasun eta hizkuntza eta zapalduen alde jokatzeko eskatzen zaigu. Baita ere eskatzen digu honek geuron inguru hori ondo aztertzea, hau da, herri egoera ondo analizatu eta aurkitzen ditugun kontradizio eta alienazioei buruz kontzientzia garbia izan.

Bailara batean urte osoan gai hau aztertzea erabaki zen, eta beste bailaretan, nahiz urte osoan ez egin, aztertzekotan gelditu ziren.

Elkarren berri jakiteko bailara bakoitzeko arduradun bat aukeratu zen, elkarrekin lan egin eta helburu berdinetara iristeko.

* * *

1go HITZALDIAREN GALDEKIZUNA (Lau galdetan planteaturik zen)

Zure inguruko pertsonengan, ikusten ahal dituzu kapitalismoaren ondoren hauek? Herrian, familian, lantokian, lasaikerian, ikastolan, dibersioetan, elizan.

- HERRIAN.- Gauza guztiak eginak ematen dauzkigute, udaletxeko eraketak goitik behera ezarriak dagoz. Herria lo zorroan bizi da. Honen ondorena, lasaikeria.

Herriko elkartetan parte hartu daiteke, baina, kontzientzia faltaz, utzi egiten dugu burrukarik egin gabe.

- FAMILIAN.- Honen eraketa guztia konsumo gizarteari erantzuteko jarria dago. Sistema honek familia bakartia egiten du, bakartia egin

duenez gero, bakoitzak bere tresnak behar ditu, tresna hauek erosteko ordu gehiago sartu beharra...


Gaurko familia sexual harremanak eta haurrak izaten oinarritua gelditzen da, gizartearen arazoetan partu hartu gabe, haur hoiien geroari behar bezala begiratu gabe.

Haurrak ere gurasoen zerbitzurako izaten dira, eta gurasoek emandako heziketaz nortasun jator baten jabe ezin izan

Emakumea ezkontzen denean zeharo baztertua gelditzen da gizarteke prolematikatik. Gizartetik baztertze hau justifikatzeko bere "amatasuna" gora eta amatasuna behera, umeak hazi, etxea txukundu, t.a., t.a.

Gizonak seguridade baten zale izatea interesatzen zaio gaurko sistema ekonomiko honi. Seguridadeak esan nahi du errazera jotzea, zenbait balorez ez kezkatzea, berekoikeriz jokatzeko, lasai eta konformismo batetan bizi ahal izatea.

Familiak bere helburua herriarenarekin bat egin beharrean, seme-alaba eta sexual harremanetan bakarrik gelditzen da.



.- LANTOKIAN.- Nagusiak bere esku ditu langile eta lanerako tresnak. Goitik beherako sistema honek klase zapalketa dakar.

Primak, kontrolak, konbenioak, hauek sortzen dute langile arteko zatiketa. Giza eskubideak oinperatuak, soldata errukarria, inongo erabakietan parte hartzerik ez. Langile estroktoretan batere representabiderik ez.

Sindikatoak ezarritako disziplinaren mendean dagoz. Sindikatu honen kargu nagusienak estaduak ezarriak bait dira, eta ez langileak aukeratuak.

.- IKASTOLA.- Honen eraketa goitik begera antolatu dago, texto eta maila berdinak haur guzientzako eta maila guzientzako, ikasleek ez dute aukera-biderik.

Heziketari ez diote garrantzirik ematen, teknikari baizik. Ikasketak, gehienbat tituloa lortzeko izaten dira, eta tituloa diru gehiago irabazteko.

- DIBERSIOA. - Dibersioak jendeari bere prolematikak burutik kentzeko jarrita dagoz, kapitalismoaren interesak defenditzeko, sistema honen produkto batzuk dira.

- ELIZA. - Eliz gizonak gobernuak aukeratuak eta ordainduak dira. Honek sistimaren zerbitzuan jartzen ditu, bere interesak defenditzeko.

Eliza bera da zapaltzaile gauza askotan, gizonaren behar fundamentalak isilduz eta askatasunaren aurkako kontzintzia bat eginez, familiaren ikuspegi jator bat eman beharrean, sistiman integrazteko bideak eta ikuspegiak eman ditu.

2gn. HITZALDIKO GALDEKIZUNAREN ERANTZUNAK

1.- Kapitalismoak bere zerbitzurako sortzen du gizona, zuri iduritzen ahal zaizu beste era baterako gizona behar dugula?

- Aipatuko ahal zenituzke gizonak behar dituen karakteristika batzuek eta egungo gizonak ez dituenak?

- Karakteristika hauek desarroilatzeak zer emango eta zer kenduko lioke gizonari?

Euskal langilearen interesak defendituko dituen gizona behar dugu, hortarako karakteristika hauek landu behar ditu:

- Nortasuna
- Justizia
- Erresponsabilitatea
- Herriarekin dadukan konpromisoa.

- EMATEN DIO. - Bere eginkizun historikoaren kontzientzia hartzea, hau da, herri zapaldu horretatik atera eta, batez ere, dinamika hori markatzea eta zuzentzea. Horren kontzientzia, klase bezala, berak hartzea beharrezko du, eta erantzukizuna berea denez, inguruan sor-

tu litezken burrukatarako bideetan sartuta egon behar du.

Kontzientzia hartze hori ez du izan behar teoria mailan bakarrik, beharrezkoa du ikusi duen teoria praktikan jartzea.

Eginkizun horrek klase osoarena behar du izan, kontzientzia hartze hori ezin da geldi batzun bizkar bakarrik, klase osoak irauli behar du.


- KENTZEN DIO. -

- APOLITIKO izatea
- Berekoia izatea
- Materialista izatea.

2.- Egungo gizarte eraketa kapitalista honek irauteko zenbait esturktura BEREZIAK BA DITU, zein da zuretzako gizarte eraketa honen oinarria?

Sistema kaitalista ez da oinarritzen ekonomi alderdi-az bakarrik, baizik herri zapalketan ere bai, hau da, kultura, politika eta ideologi alderdiaz baliatzen da.

Gizarte kapitalista honen helburua ekonomia da. Ekonomia hau guti batzuen eskuetan dago. Honek langile esplotaketa dakar batetik, eta bestetik, bide horri jarraitzeko, estatua, agintariak, politika, irakaskintza, bere mendean hartzen ditu, berriz ere gizon bakartia, materialista, apolitikoa sortzeko.



3.- Esaten dugu egungo gizona ez dela bere nortasunaren jabe, gizonak nortasun hori recuperatzea beharrezkoa denez, zein da guk hori lortzeko hartu behar dugun bidea?

Beharrezkoa ikusten dugu instituzioak, aiuntamenduak euskaldunak egitea, langileekin partizipatzea. Baina hori bakarrik soluzio denik ez dugu ikusten. Hauek bitartekoak izanik, sistema kapitalista hau iraultzea izango da helburua.

Errealitatearen kontzientzia hartzeak jarriko gaitu

3gn. GALDEKIZUNAREN ERANTZUNAK

Egungo gizonaren egoera ikusita, ikastola aztertzea eta egoera honen aurrean bere egitekoa zer den ikuste a izan zen.

1.- Iduritzen ahal zaizu ikastola gizonaren zapaltzaile izan daitekela? Euskera erakustea nahikoa ahal dugu egun haur den eta biharko eguenz GIZON BAT izango den horri erantzuna emateko?

Euskera eta pedagogia on baten bidez kontenido edo pentsakera ezberdinak eman ahal daitezke?

Ikastola zapaltzailea izan daiteke. Herrian finkatutako kultura bat eman behar du. Honetarako politika ikuspegi bat ian behar du, hau da, hemengo eta gaurko kultura, kultura gizontzailea eta euskalduntzailea, hemen sustraitua.

Kulturak gizarte erakundeen oinarrira jo behar du. Euskera eta pedagogia ez dira aski, hauek bitartekoak dira, helburua gizon osoak egitea da.

2.- Egun andereñoen eginkizuna zer dela uste duzu?

IKASTOLAN. - Euskera, pedagogia, haurren heziketaz t.a.

HERRIAN. - Herriko gaztediarekin, zentro eta soziedadeetan, herriko langile mugimenduetan...

GERTAKIZUNEN AURREAN. - Han eta hemen gerta daitezken gauzetan.

- IKASTOLAN. - Andereñoa kontzientziatu beharra, haurrak eta gurasoak hezitzeko.

Andereñoa konprometitu beharra.

Haurraren heziketa osoa.

Talde bezala organizatu, ikastolaren helburuak zein diren eta honek herri iraultzan zein leku dadukan jakiteko.

Haurra hezitzeko pedagogia on bat bilatu. Pedagogia honek herri konkretora hezi behar duenez, bere arazoak

eta hizkuntza ezin baztertuko ditu.

- HERRIAN. - Herriaren arazoetan parte hartzea. Andereñoak herriarekin joan behar du. Ikastolak herri kontzientzia sortzen ez ba du zer eginik ez du. Haurra herrikoia izatea nahi badugu, herrian dauden arazoak bizi behar ditugu. Ikastolak herrikoia izan behar, eta herri arazoetan hotz baldin bagaude, nola heziko haur hori? Herriaren arazoak ezagutu, era berean, herriak ikastolarenak, denok elkarren laguntzarekin herri bat osatzeko.

- GERTAKIZUNEN AURREAN. - Beste edozein herritarrek bezala parte hartuz.



FEDEA ETA IKASTOLA

Zer da fedea? Zer da Ikastola? Galdera hauetatik hasi beharko dugu, diren eztabaidak pixka bat argitu nahi baditugu. Hala ere, ez dugu eman nahi -ezin dugu eman- fedearen eta Ikastolaren definiziorik.

Lehenbizi, fedearen alderdi edo momentu batzuk ikusiko ditugu. Gero, Ikastola zer den baino Ikastola zertarako den zuzenago esango dugu, baina oso laburki.

Fededun izatea zer den galdetzerakoan, nahi haina erantzun ezberdin entzun daiteke:

- a) Bizitza jator bat eramatea, konpromisoa, justiziaren alde lan egitea, besteentzat bizitzea, eta abar.
- b) Absolutu den zerbar ba dela sinestea.
- d) Kristoren heriotza eta piztuera onartu eta hori tan parte izango dugula sinestea.
- e) Kristau dotrina onartzea.
- f) Kristo pertsonagan konfiantza osoa izatea.
- g) Sakramenduak hartzea, otoitz egitea.

Bakoitzak izan duen heziketak, inguruan duen giroak eta jendeek, barnean duen psikologiako konstituzioak, eta izan dezazkean "intereseak", horietako erantzun batera nahiz bestera bultzatuko du. Baina errealitate a ez da hain ximplea. Hain aurpegi batekoa ez dela esan nahi dut. Erantzun guzti horiek dute zerikusia fedearen mamiarekin.

Eskema klasikoetatik ahal dudan neurrian irtenik, terminologia eta klasifikazio berri batzuk erabiliko ditut fedearen gorputz osoa nolabait adierazteko.

Fedearen baitan bost momentu -maila, alderdi - ikusten ditut nik. (Niri atseginen zaidan hitza "mementua" da. Har eta erabil zuk besteak, egokiago baderizkiozu):

- 1.- Praxis mementua.
- 2.- Interpretazio mementua.

- 3.- Sistematizazio mementua.
- 4.- Traszendentzi mementua.
- 5.- Ospaketa mementua.

- 1.- Praxis mementua.

Zer da fedea? Gaurko gazte fededun -fededun ala fedebilatzaile? -askoren erantzuna: giza-baloreen lan tzea, nortasuna bilatzea, askatasun eta justitzigintza, pertsonagintza, konpromisoa.

Nire iritziz - eta lehen esan bezala - erantzun hau ez da aski, erantzun hori bere horretan osoa dela uste bada behintzat. Fedearen mamia gehiago zehaztu eta mugatu beharra dago. Baina ala ere, uste dut horixe dela mementurik nagusiena eta definitzaileena. Ekin tza, hots, erresponsabilitatez eta askatasunez pertsonagintzaren alde mamitzen den ekintza askatzailea da gi zabizitzan mementu aberatsena.

Marxek ongi esan zuen (beldur naiz Marx aipatzeaz, gizon honi fobia eta nazka neurrigabea dioten "katoliku eta erromaniku" zenbait lepotik etiketatxoaz ezartzen hasiko bait zaizkit): "Filosofok orainarte mundua interpretatzen ibili dira; mundua aldatzen hasteko ordua heldu da".

Hori egia da, ez gizarteak eskatzen duen zerbait delako bakarrik; bai eta ere psikologia aldetik begiraturik. Oso heziketa aproposa hartu dugu gure mundualdi hau munduaren interpretazio polit bat ematen pentsatzeko. Mundu hau nola den, zergatik, zertarako, eta abar. Baina gizarteak dituen baloreak, ordenak, oiturak, eta mailak, diren bezala uzteko kondiziotan.

Gaurregun ongi xamar jabetuak gara gizonaren ekintzatsunaren balio definigarriaz. Hori dela eta, praxis mementuak lehen mailan behar du, bai giza aldetik eta bai fede aldetik. Askatasungintzako praxis da fedearen benetakotasun ordua. Nik beste gizon horri zergatik, nola lagundu behar diodan jakitea, pertsonari da gokion eta pertsona osatzen duen zerbait da. Baina beste gizon horri laguntzea da egiazko mementua. Memen-

tu horretan askatzen dut bestea eta bestea askatze horretan askatzen dut nire burua.

2.- Interpretazio mementua.

Alde batetik:

"Zorionekoak pobreak"

"Zorionekoak justiziaren gose-egarri direnak"

"Horietako bati egiten diozutena, niri egiten dautazue."

Baita ere, Kristoren jokabidea, bere "besteentzat izatea". Bere bizitza besteengatik ematea. Eta abar.

Bestetik:

Elkarkidetzaz, elkarlana, pobre izatea, injustiziak salatzea, barkatzea, eta abar. Hitz batez, ikastolan haur batek landu behar dituen giza balore jatorrak.

Eta lotura:

balore hauek ebanjelioko pentsamolde horrekin bat dotoz. Balore hauek, jokabide hau, laguntza hau, besteetaz arduratze hau, Kristoren jokabidearekin bat dator. Lotura hori ezartzea litzake bigarren mementua, interpretazio mementua.

Interpretazio hau egiteko ez dago fede oso eta heldu beharrik, ez da Kristoren Jainkotasunean edo transzendentzian sinetsi beharrik. Aski da ikustea Kristo horrek ideologia askatzaile bat ematen duela, bere bizitza besteentzat eman zuela, historian zehar eragin handia izan duela eta gaur ere bai duela.

3.- Sistematizazio mementua.

Edo dotriña mementoa. Kristau fedearen egiak, Kristoren dotrina eta bizitzaren ikuspegia ematea izango litzake. Kristoren dotrina eta ekintza klasifi-

katzea, azaltzea eta interpretatzea.

Gaurko Kristau Ikasbideak hortik hasten dira. Lehen mailan memento hori ifintzen dute. Dotrina edo e-
gia sistematizatu horiek ematetik hasten dira, gero, be-
harbada, bizitza mailara aplikaziobidez jaisteko. Nire
iritziz, oso bide okerra da eta haurren psikologiaren
kontra kontrakoa.

4.- Traszendentsi mementoa

Kristo ez da gizon soil bat. Haren ekintza ez da ekintza iraultzaile eta askatzaile soil bat. Haren bi-
zitza eta ekintza ez dira oraingotasunaren menpean. Haren nortasuna ez da heriotzean bukatzen. Bere burua betirako du libre. Horretan datza bere nortasunaren o-
sotasuna.

Gure aldetik, berriz, Haren burrukan eta heriotze-
an parte hartuz bere nortasuna gureganatzen dugu eta,
heriotza menderatuz, geroaren jabe egiten. Ekintza me-
mento latzean, esperantza honek ematen dauku arnas.
Traszendentsi memento hau oso inportantea da niretzat.
Baina, batetik, haurraren psikologia, eta bestetik, tras-
zendentsia hau ikustearen zailtasuna kontuan izanaz, ez
dugu presarik izan behar memento hau esplikatzeke.
Ez dugu indarpetu behar, ez haurren desarroiloa, ez eta
ere fedearen naturaleza.



5.- Ospaketa mementoa

Otoitza eta sakramenduak. Batez ere Eukaristi e-
kintza. Ospaketa honek ez du sentidurik traszendentsi
mementoa ikusi eta onartu arte. Kristoren traszenden-
tzian sinesten ez badut, Harekin otoitz eta sakramentu-
en bidez harremanetan sartzea, zentzu gabeko zebait da.

Hemen ere, sakramendukeria batetan heziak izan ga-
ra. Psikologiaren eta fedearen pausoak batere errespe-
tatu gabe, teilatutik hasi dugu etxegintza. Giza heldu-
tasun eta fede heldutasunaren espresio bide izan behar
zukeana, haurren jostailu eta jendeen lobelar bilakatu
da gehienetan. Izan ere, teilatutik hasten den etxeak

ez du inoiz inongo taxurik izango.

Hauek honela direlarik, zer dagokio I -
kastolari eta zer Katekesiari?

1.- Fedearen lehen mementoa, hots, praxis mementoa, Ikastolak eman behar duen zerbait da. Kulturagintza, pertsonagintza, askatasun eta justizigintza, giza baloreak lantzea, gizon berriak sortzea da Ikastolaren egitekoa. Praxis hori fedearen praxis mementoarekin identifikatua gelditzen da. Memento hori Beharrezkoa du haurrak. Ikastolari eta haurraren adinari dagokiona da.

2.- Interpretazio mementoa ez dut, nahi eta nahi ez, Ikastolak eman behar duenik ikusten. Kristorekin lotu beharrean beste batekin lot daiteke praxis hori. Dena den, eta gaurko Euskal Herri honetan guraso gehienak eta andereño gehientsuenak interpretazio hori onartzen dutelarik-eta denak interpretazio hori ematera behartu gabe- ez nuke gaizki ikusiko Ikastoletan. Kontuan izanik, gainera, praxisa indartzen eta sendotzen duen zerbait dela, eta ez muntadura artifizial bat bakarrik.

3.- Sistematisazio mementoari ez diot Ikastolan sentidurik ikusten. Ez da, nire ustez, haurren adinari dagokion mementoa. 6-8-10-12 urtetan egia mordo sistematizatu bat haurraren buruan sartzea kaltegarri dela uste dut. Dena den, katekesiaren lana izango litzake bereziki.

4.- Traszendentzi mementoa ez da, berriz, ez haurraren adinari dagokiona eta ez Ikastolari dagokiona. Giza baloreetan heldutasun bat eskatzen du, alde bate-tik, eta hautapenezko zerbait da, bestetik. Uste dut ez dagoela esan beharrik, gizonak gizon izateko fededun izan beharrik ez duenik. Memento honen mailan, fedea opzio bat da, hautatzen den zerbait, ez beharrezkoa. (Ikus honetaz, aldizkari honetan "Ikastola eta Erligioa" izenburuz publikatu zen artikulua, bere azken zatian).

5.- Ospaketa mementoa aurrekoarekin loturik dago


enez gero, hor esan denarekin aski dela uste dut.

ONDORENEZ:

Ez dugu esango, inolas ere, Ikastolan erlijiorik edo federik eman behar ez denik, baizik eta, fedeak memento asko duela jakinik, memento horietarik Ikastolari eta haurraren adinari dagozkionak emango direla. Fedearen naturaleza eta haurraren desarroiloa hantzat hartuz. Hori dela uste dut zintzo jokatzea.

E. OSA





Orain dela iru urte hasi ginen "giñol" egiten. Lehenengo bi urtetan, erderaz bakarrik egin genuen. Aurten euskeraz eta erderaz. Orain esango dautzuegu zer egin dugun, nola, eta zer ondoren atera dugun urte hauetan.

Zer gauza ikusi dugu garbi:

1) Giñola haurrei asko gustatzen zaie. Adina onena giñol ikusteko 4 urtetik 8 urte arte da; gero badakizue haur bakoitza ez-berdina dela, eta herri batetik bestera ere, aldaketak daude.

2) Haurrek giñolean ikusten duten guztia, sinesten dute. Berentzako giñoleko gauzak ez dira ipuinak, bizia da. Han ikusten dituztenak gauza egitazkoaak dira. Horregatik hain laster sarten dira. Berek hitz-egiten dute panpinekin, egitazkoa direlako. Horregatik beren parte hartzea berezkoa da. Ezin dute egon panpinei lagundu gabe eta berekin hitz-egin gabe. Umetxoek teoriaz ba dakite panpinak, panpinak direla, eta guk barrutik erabiltzen ditugularik gaian sartzen dira. Panpinaren bizia bizitzen dute, eta panpinekin batera pozik eta goibel jartzen dira.

Horregatik ohartu zaitezte zer bitartekoa daukagun esku artean. Zer egin dezakegu, hortaz, bitarteko horrekin?...

1) Giñolaren bidez umetxoei zuek nahi duzuen sortu erazi.

Guk giñolak bukatu ondoren inkesta ttiki bat biharamonean egiten dugu umetxoen artean. Ez dakizue zenbat gauza jasotzen duten. Esaldi osoak buruz dakizkitez; hari guztia, panpiñen jantziak, gauza guztietaz jabetu dira.

Horregatik zuek esango diezuna berdin hartuko dute.

2) Umetxoekin hitz-egiten: esate baterako. Behar bada ba dituzue umetxo batzuek hitxiak, ez berdiñak eta zuentzako zaila da bere barnean sartzea. Panpinen bidez hobeto iritxiko duzue. Umetxoak panpiñekin hitz

egingo du zuekin bainan errazago.

3) Beste gauza bat ona hauxe da. Haurrak berak giñolak egitea. Horrela egiten dutenean beren izaera panpinetan agertzen dute.



Gure lana, noski, ez-berdina da. Guk noizean bein bakarrik egiten dugu giñola eta beti umetxo ezberdinekin, horregatik helburu bat besterik ez dugu jartzen. Umetxoei ondo pasa arazi baina zerbait erakutsiaz, edo behintzat ez gaizki erakutsiaz. Nola egiten dugu hori?

Arreta pixkat izan dugu pertsonaiak hautatzean. Nolakoak diren guretzako garrantzi handia du. Esate baterako neska eta mutilla. Guk egin ditugun, edo nahi ditugun bi haur normalak, ikusten dituztenak bezelakoak. Ez dira eri ez jainko; zintzoak dira, bai, bainan batzuetan baita ere bihurriak. Ez dituzte aurkitu berak bakarrik arazoan erantzunak, bere lagunaren laguntza behar dute.

Baita ere agertzen dira sorgina eta otsoa. Hori erabaki baino lehen, zalantzan ibili ginen. Sorgina atera edo ez, otso bat egin ala ez. Azkenean baietz erabaki genuen. Bearbada datorren urtean ezetz esango dugu. Baina nahi ditugu egin sorgin eta otso bat ez betikoak bezalakoak. Sorgina esate baterako ez da gaiztoa; horixe sorgiña. Otsoak berriz, Bishente izena du eta gixajo bat da.

Oso adierazgarriak izan dira inkestak egin ditugunean. Umetxoeri galdetu diegu: zer panpina hartuko zenukete zuentzat? Eta haur askok erantzun daukute: Neretzat, otso Bishente hartuko nuke.


Sorginari buruz ere galdetu diegu. Sorgina zer eragin dautzu, barre ala ikaratu. Eta ia kasik denak barra egin dute sorginarekin.

Gogorkeriari buruz ere, zerbait egin dugu betiko giñol aldaratuta. Betiko giñol onena zan, eta oraindik da, panpiñak joka asten diranean. Protagonista ogroa, edo sorgina, arrapatzen duenean makilaka erasten dio y...toma...y...toma.....esaten du. Eta umetxo guztiak batera esaten dute...y...toma...y...toma...izu

garria. Hori guri ez zaigu batere gustatzen.

Gure panpinak bai, batzuetan ematen dituzte kaska rreko batzuek baina hori bakarrik, kaskarrekoak.


Beste zebait funtsa ere bai, sortu nahi ditugu umetxoetan. Guk uste dugu, giñolarekin bide zabala eta luzea daukagula. Guk astea besterik ez dugu egin, eta pixkana pixkana era berriak eta -obeak bilatu behar ditugu denok elkarrekin.



ENTZUN-IKUSKIAK

Ba da prolema garratz bat, gure artean aipatzen ez dena, baina beste nazio batzuetan buruhauste handiak ematen dituen: entzun-ikuskien prolema, eta beronen eskutik datozenak: sasi-ikastola, deformazioa eta gizonaren alienazioa.

Entzun-ikuskiak dira gaurregungo hizkuntzan, bizi garen sozietate honetan, gizon batzuek erabiltzen dituzten propaganda bideak, behin berek saldu nahi dutena hauzoei erosi erazteko, behin herriaren aginpidea beeren pean eduki dezaten.



Arlo honetan lanik gehien egiten duten entzun-ikusgailuak hautxek dira: Telebista, zinea eta irratia. Entzun-ikuskien bitartez, gizona, bera konturatzeke, aholoturik, itsutua eta bere kontrarioen bidezidorrean zehar aurki liteke.

Ikastolan, berriz, haurrari, ttipidanik sar lezakiok deformazioa bide honetatik, eta gero guztiz zaila izango litzake gizon honi zuzenbidea zein den konprenieraztea.

Propaganda-bide honen nagusi izatera heltzen denak, herri guztia bereganatzen du. Gutti konturatzen dira entzun-ikuskietatik datorren informazioa beti margo berezi batekin datorrela. Noski, sarritan sekulako gezurrak jaurtitzen dira eta denok ikusi ahal ditugu. Baina, beste batzutan, gezur handi biren artean erdi-bada-ezpadako gezurrak laprastadan sartzen dira geu ohartu ere gabe. Zeren ba dira gizon trebeak entzun-ikusgailuetan, beti metaforaz mintzatzen direnak eta itokina bezala, beren gezurrak ongi apaindurik inoiz egiairik esaten ez dutenak.

Izan ere, entzun-ikusgailu hauekin egin litekeen lan zoragarria berenganatzeko indar-taldeak ilunpetan ibiltzen dira, zeren-eta gauza jakina denez, tresna horiek eskuratzen dituenak, lehentxeago edo geroxeago, bereganatuko bait du herria.

Zuek esango dautazue, beraz, zer egin litekeen entzun-ikuskiak behin herriaren eskuetara bilduz gero.

Ez genezake pentsa ere gaur egun; Egokera horretan aurkitzea beharreko izango litzake, baldin-eta horren garrantziaz jabetu ahal izateko. Hori bai, inola ere herrietik etorri eta herriak hautatuak izan beharko luteke, beti ere bere zerbitzurako. Herriak kontrol-bide bat izan ezik, laster agertuko bait litzake indar-talderen bat entzun-ikuskiez jabetzeko eta berriro ere herria alienatzeko.

Baina ez uste dena txarra denik tresnagailu hauetan, orain ere ongi probetxatuz gero, kultura bide ona izanen litzake herriarentzat. Egun oro irakurtzen da " la formación permanente " delakoa eta formazio hori bereziki entzun-ikuskien lana da, batez ere ikastoletan haurrak dituzten gurasoei egungo prolemen berri eta planteamendua nondik dabilen adierazteko; bai eta euskara sabilitzen guztiei berotasun apur bat emateko, programa egoki batzuen bidez.

Ez dut teknika gora-beheran sartu nahi, lan luze-egia izanen bait litzake, baina gure erakusaldien berri dakienak ba daki, adibidez, zer lan ederra egin litekeen diapositiben bitartez, eta noski, "diapo" batek irudi batekin liburuko orri batek baino hobekiago azaltzen duela sarritan. Azalpen hori andereñoaren esku utz liteke, eta are hobe, magnetofonoa baldin bada alboan.

Esanak esan arren, ba dakit gai hau ez dela ondo hartzen gure artean, bestenaz gehiago entseatu eta baliatuko ginake tresna hauetaz, bai pedagogiari buruz ikastoletan, bai kulturaren eta hizkuntzaren alde erabil genezazkeen tresna hauetaz.

Beste hizkuntzetan egiten diren bezalako lanak eta haiek egiten dituzten sakontasunarekin euskaraz ere egiten ditugunean, orduan izango da euskera beste edozeinen mailan eta edozertarako gai. Gainera, ez dezagun inola hauzokoak etorriko direnik lan hau egin diezaiguten, ez. Geuk egin beharko dugu lan hori, eta nere ustez, oraingoz andereñoen esku dago bereziki buruhauste honen erantzuna. Zuek nahi baduzue, zuen bitartez, dira entzun-ikuskiak ikastoletan sartuko, eta gero, herria aurrerat dohan heinean balia gaitzke nortasun eta ahalmen guztiz.

Udako Ikastaroan Matematika

Donostian egin zen udako ikastaroan gai hauk erabili ziren matematikaren aldetik:

D. Karlos Santamariak "Halabehharraren matematika"-ri buruz hitzegin zuen; geuk berriz, lehenbizi matematikak ikastolan duen eginkizuna aztertzen saiatu ginen, gero multzoen teoria apur bat eta zenbakintza oinarri desberdinetan lanegiteko ere eman genizkien, gai hauk oraino ezagutzen ez zituen talde bati, eta beste talde bati algebra berriaren adar desberdinek duten estruktura aldeko batasuna, arrazoiketa logikoa eta logigramak.

Ondoren berriz, bi taldeek elkarrekin orain arte ikastalatan egin den zenbait lanen azterketa egin zuten.


Topologiaren oinarri batzuk emateko asmoa ere ba genuen baina gaiaren laburpen bat banatzea besterik ez genuen egin asti faltagatik.

Matematikak pedagogia berriaren barrenean eta ikastalatan duen eginkizuna ikusteko, matematika erakusteko era zaharrak ekarri dauzkigun akats batzuk azaldu genituen, gaitzaren muina kalkulora bakarrik zuzendutako matematika bat erakustean eta didaktika trakets batetan bilatuz.

Matematika berriak oinarrizko estrukturatara jotzen duelako, burua osatzeko duen apropostasuna azaltzen saiatu ginen eta gai horiek emateko pedagogia berriaren premia agertzen.

Bestetik, irakasleok teoria aldetik ongi jazteko duzuen premia aipatu genuen, ez baitezakezue errezeta soil batzuk ikasi eta matematikaz behar bezala balia zaitezketenik uste izan. Teoria ongi ezagutzeak eta pedagogia berria sakonki ezagutzeak emanen dautzue, matematika hurraren nortasuna osatzeko erabil dezazuen, irizpide jator bat. Irizpide hori izanez gero irakasle bakoitzak hurraren bizitzatik aterako du, matematika heziketan erabiltzeko materiala.

Hasierako saio honetan, horietxek ziren, beraz, gar



bi utzi nahi genituen puntuak eta gero saio guztiei
espiritua eta izateko arrazoia ematen zizkietenak:

1) Matematika berria oso gaztetatik erabi-
li behar dute hurrek estrukturen aldetik oinarri on
bat har dezaten.

2) Matematika berria eta pedagogia berria
elkarrekin doaz eta elkar eskatzen dute.

3) Irakasleak matematikaren teoria ongi e-
zagutu behar dute.

4) Eguneroko bizitzatik atera behar dituz-
te matematika lantzeko gaiak.

Ondoren eman ziren gaiak ez zitezkeen sakontasun
handiz eman eta ez ziren eman nahi izan ere ikastaro-
ak ez baitu izan behar zuzanean, landu gabe gai batzuk
edo ariketa batzuk ikasteko lekua; bide interesgarri-
rren berri emanen dena baizik. Gero ikasleen lana da,
bakarka edo taldeka, han azaldu bakarrik egin diren ga-
iak, sakon ikastea eta ikastolara moldatzea.

Bakoitzaren lanak bakarrik balio du gauzak bene-
tan ikasteko; ikastaro batetan bideak, joerak, oinarri-
ko informazioak bakarrik eman daitezke eta eman behar
dira.

Hori izan bederen guk bilatzen genuena.

K. Zumalabe.

A. Sagarna.



-37- Ballarako Erabakiak

Jakina denez, ikastaroa laburtu eta tokiz aldatu beharra izan zen. Honek erabakietara hel gintezen lana zaildu egiten zuen eta azkenik erabaki zehatzak ballara mailan, ikastaroaren haseran, hartzea zela onena pentsatu zen. Dena dela zenbait asmo nahiko garbi agertu zen eta hauen berri ematera goaz.

1.- Urte osoan barrena landuko diren BIZPAIRU gai, ikastaroaren haseran aukeratzea, mugatzea eta programatzea. Hau, une hontan ditugun eginkizun zehatzei erantzun nahirik egiten zen.

2.- Lehenik gure mentalizatzeko lanari begira: bizi dugun gizarte honen oinarritzko eraketak aztertu. Gure herriak bizi dituen arazoez jabetu bereziki. Nonela haurraren heziketa bere gizarte inguruan eta bereziki herri inguruan situatu ahal izanen dugu.

3.- Gurasoak beren haurren heziketan biziki integratzen saiatu behar dugula. Hau lor ahal izateko zer egin dezakegun aztertzerakoan zera ikusten guen:

- Ikastolan ari dugun lanaren informazioa eta arrazoitzea, zor diegula.

- Honek beren heziketa osatzera bultzatuko dituela.

4.- Ikastola bakoitzean behar dela urte osorako programa bat egin. Gela barreneko lana eta organizazioari buruz saio batzuk egin behar ditugula.

5.- Bakoitzak egin ahal duen lan pertsonaletik bilerak, herri mailan nahiz ballara mailan, beti abiatzea.

6.- Herri bakoitzean talde edo ekipo lana egiten ahalegindu. Bai herri arazoetan bai eta pedagogia alorrean denok bateratsu jokateko, hau nora-ezekoa ikusten da.

TOLOSA-GOIHERRI-ARRASATE ballarak aukeratutako gaiak.

- 1.- Haurra eta ingurua.
 - egungo gizartearen ekonomiko eraketa.
 - gaurko gizonaren tipologia eta gizon berriarena.
 - haur erdaldunen integrazio arazoa.
- 2.- Erlijioa atzo, gaur, bihar.
- 3.- Pedagogia berria.

BALLARA HAUETAN sariketari buruzko azterketa.

- denek nahi lukete sariketa kontuan berdintasan baetara hel gaitezen.
- gure esku dagoana egiteaz hasi behar du. Herri mailan, ballaran
- ikastaroaren haseran jokabide konkretu batzuk markatu.



ALDIZKARIA

Arduradunak. - Aldizkariaren beraren uztail-eko zenbakia irakurri duzutenok, han aipatzen genuenez, planteamendu berria egin dugu.

Hortarako, talde arduradun bat osatu da, baina ez inola ere talde heresia, lan hau gogoko duen eta honetan parte hartu nahi lukean bat balitz, begi onez ikusia izango da eta gure artean. Hona oraingoz zeintzuk garen: Ansa Anjel, Arzallua Joxe Mari, Senosiain Eguzkine, Imanol Gaztañaga, Setien Jaxinto eta Lekunberri Xabier.

HELBURU ETA EGINKIZUNAK.

- Ikastolako errealitatearen, herri nahiz bailare tako errealitatearen, espresio behar du izan aldizkariak.

- Aldizkaria kritikari lotzea beharrezko jotzen da, eta irakasle guztien kritikaren zerian dago aldizkaria.

- Zernahi gai eta, batik bat, urteko lanak bizkortzeko eta aztertzeko tresna izan behar duela uste dugu.

- Zirikatzaile izatea, lanak bildu eta ordenaturik argitara ematea dela ikusten da gure eginkizuna.

PLANA.

Zenbat. - Urtean hamaika ale aterako dira oraingoz. Uztail-eko alea udako ikastaldeari buruz eman go da eta Abuztu-Irailetakoa, ikastaldiko gai-rik interesgarrienak edo laburpen eta erabakien berri emateko.

Egitura. - Bereziki, hiru parte eramango ditu: esperientziak, sakonketa lanak eta informazioa. Zehar bait alditan edo behar denean, baita, kritikari leku emanaz, "Irakurleen xokoa" edo gisa horretako parte bat eramango luke.

- 3.- Haurraren espresioa.
- 4.- Sikologia eskolatan.
- 5.- Eskola erakunde bezala.
- 6.- Lege Berriaren azterketa.


Hona hemen landu duten programa. Zehazkiagi arrasatearrek ere emango ahal dautzute hurrengoan artikulo bat, hango berri hemanaz edo hobe guretzat puntu interesgarriaren batzuk azalduaz.

4.- LOIOLA

Hemen izan da, gureaz aparte, irakasle multzorik handiena. Hau ere ondo johan dela diote hor ibili direnak. Zeruko Argian esan dena irakurriaz, ondo baino hobeto burutu direla ere jakin dugu, gozo gehiegi zulela edonork igartzeko moduan idatzia baldin bazen ere.

Baina, tira; gure artean desberdinetako jendea gaudenez, aberasgarri izan liteke talde bakarrak (dena dela ere) monopolizatu orde, bakoitzak bere bidea osoki markatzea besterena errespetatuz.

BERRIKETARI



NON ZER

Sarrera	1
Udako gogoetak	2
Pedagogia berria ala berritua?	6
Haurra eta ingurua	12
Erantzunen bilduma	18
Fedea eta Ikastola	24
Giñola	30
Entzun-Ikuskiak	33
Matematika udako ikastaroan	35
Ballarako erabakiak	37
Aldizkaria	39
Din dan boieran	41
Non zer	43

